

KOSTUEN EGITURA

Hasteko, guk lokal propioa eduki beharko dugu. Lokal hau alokatua denez, hilabeteko 600€-ko gastuak ordainduko ditugu: zuzena, zuzenean ordainduko dugulako eta finkoa, beti berdina izango delako. Bertan ordenagailuak eta telefonoa edukiko ditugu. Telefonoaren tarifa hilabeteko 32,5€-koa izango da, hau ere, zuzena eta finkoa. 2 ordenagailu edukiko ditugu, bakoitzak, 1200€ balio ditu.

Armairuak ekoizteko fabrika eta biltegi bat izango ditugu. Hauek alokatuak direnez, hilean, bien batura 900€-koa izango da, hau, kostu zuzena eta finkoa izango da. Makinen eta tresnerien kostu totalak 1350€-koa da. Guk erosi ditugunez, ez da beharrezkoa hilero ordaintzea. Gure enpresako langileen soldata ere ordaindu beharko dugu, hilabeteko batz bestea 1200€-koa izango da, egiten duten lanaren arabera. Kostu zuzen eta finkoa izango da.

Beste kostu bat produktuen garraiatzea izango da. Horretarako bi kamioi beharko ditugu. Kamioi bakoitzak 3500€ balio ditu. Kamioi horiek aseguratzea, urtean 600€-koa izango da.

Bataz besteko armairu bakoitzeko kostu aldakorrak 150€-koa da. Tamaina eta diseinuaren arabera aldatuko da prezioa.